


Tourra baino gehiago da



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Uztailaren 14a da, eta oporretako lehen eguna txirrindulari familia batean. Semeak lasterketa du arratsaldean eta denek harako bidea hartzeko dute. Batzuei zaila gertatzen ahal zaizue ulertzea zer den giroa, ez bazarete ez kirolari ez zale. Bada Tour aire bat, oraino urrun bada ere bere hoinakoa bidean, laster hurbilduko baita mendate famatuetera, eta lasterketa orok etapa itxura hartzen du nerabeen izpirituan eta gainerakoengan. Gainera, uztailaren 14a izanik, lehen hamarretan helduko direnen saria doblatua izanen da. Kontxo!

Orduan, hain arrotz eta hain ez leku bilakatua den hiritik ihes eginen du familia osoak, sostenguz, berdin dio distantzia, zenbat gradu, itzala bilatu beharra, xitoxa animatzera joanen dira denak. Alda izanen da, segur, usaiako lan egun dorpearen aldean. Argitzeko, lasterketa oro hiru eguneko erritua neurtua da. Bada bezpera, material eta hazkurri prestaketarako eta trebaketarako. Bada lasterketa eguna. Eta izanen da biharamuna, bere euforia nahiz dezepzioekin baina betiere luzaketa serie onarekin.

Dena prest da, txirrindola, ur bi doiak, lasterraldian hurrupatzeko koktel azukrez saturatuak eta hozkailuaren

iskin batean kukuturik Coca Cola botilatxo bat (ixo), familia-kide bakoitza bere postuan.

Zarta! Abiatu dira. Zirkuitu beraren bost itzuli eginen dituzte txirrindulariek, bost aldiz iragaten ikusiko dituzte beraz senideek.

Lehen bi itzulietan, denak juntaturik datoz. "Biziki fite pasa dira, ez?". Aita-amak estrategikoki kokatu dira, bihurguneetan, pattar kaskoetan, barreiaturik, betiere itzalean.

Hirugarrenean berdintsu datoz, bildurik, nehor ausartuko ez balitz bezala atakutzen. Urrundik ageri dira heltzen maldan goiti eta ahotsak oihar dira aldizka, "*Tiens bon Thibault!*", ozena-ren ondotik "*Vas-y Clément*", entzun da. Laster hementxe da xitoxa, oihukatu beharko zaio animo zenbait, hortxe inutitki egon gabe. "Aitzina Johane!...". Deus gehiagorako denborarik ez, haizea bezala iragan baitira. Beroegi da: "Ondokoan ura botako diogu".

Laugarren itzulia, inflexio puntua: bata eskapatu da, ondotik zaluenak ausartu dira, abiadura handitu dute, haustura probokatu, *redios*. Arreba txikia bidean lehentxeago postatua da: "Ezkerrean izanen da!". Putxas, bidea zeharkatu behar da laster, leku eta angelurik hoberenean postatzeko, botilaren tapa-

kia bazter utzirik: "Abila izan beharko da". Pasatu denean, amak semeari buruz oldartu du botila, ura airatu eta lehertu da galipot freskatzera: "Uste dut bizkar zola bederen busti diodala...", "Ama, zer kakola...". Ondokoan hobeki.

Bosgarren itzulirako itzalak mugitu dira, adar bakarraren babesa baizik ez da geratzen. Azken txanpa da, aldi honetan bi ur ontzi, esku bakoitzean bana: beti ezker, ama. Plost. Bisaian harrapatu du. Behintzat haurrak ez du orekarik galdu, orain hegaldada dadila, araz podiamera.

Behin bukatu eta, izanen dira abenturak kontatzeko: bidea beroegi, ura epeldua, xantza eskasa, norberaren eta kideen estrategiak, traizioak, "Profesionalek eginen lukete hobeki?". Ez da hain segur. Eta ez du balio haien zain egotea, haien karabana, haien ikusle ezezagun multzoa eta bandera festa; orain eta hemen dago dasta. Hori agertu dute gazteek, entrenatzaileen begi bistatik urrun eta ziklisten jan-neurri guztiak zangopilatuz Coca Cola bana eskutan: ondokoan hobeki. Momentu hoberena da. Batez ere sakrifizio guztien ordain den isileko Coca Colarengatik. Bakarrik koka horrengatik balio zuen beste guztia iragateak, lan urte dorpearen ondoko opor aste zenbaitengatik nola. Uda on! ●